



2021SPLE0008
8.BILERA: OHIKOA 2021/10/28

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 2021/08	SESIÓN Nº: 2021/08
EGUNA: 2021/10/28	DÍA: 28/10/2021
HASIERA ORDUA: 19:00	HORA DE INICIO: 19:00
AMAIERA ORDUA: 19:20	HORA DE FINALIZACIÓN: 19:20
TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa	LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Debarren Ahotza udal taldea

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

Grupo municipal Debarren Ahotza

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambronero Alkorta

Eneritz Gómez Lázaro

Grupo municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambronero Alkorta

Eneritz Gómez Lázaro

Miren Esnal Laskibar

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

Gilen Garcia: Arratsalde on eta ongi etorri denoi. Ezer baino lehenago, gaurko Tokiko Gobernu Batzordean hitz egindakoari jarraituz, proposatzen da urgentziatzko gai bezala sartzea bizitegi egoera larrian dauden pertsonentzako neguko dispositiboa kudeatu eta erabiltzeko eskualdeko udalen arteko lankidetzahitzarmenaren onarpena.

Adostasuna badaukagu?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du bizitegi egoera larrian dauden pertsonentzako neguko dispositiboa kudeatu eta erabiltzeko eskualdeko udalen arteko lankidetzahitzarmenaren onarpena gaizerrendan sartzea.

1.- ALKATEAREN DEKRETUEN KONTROLA.

Pedro Bengoetxea: Nik komentatu nahi ditut bi dekretu. Bata brigadarako gidariaren kontratazioari buruzkoa. Suposatzen dut dela Lizarraren ordeztasun bat sartzea. Horiek nondik hartzen ditugu, poltsa bakarretik?

Antxoka Elorza: Aurrekoetan egin den moduan, lehenik Udalak duen lan poltsan dauden denei deitu egin zitzairen. Euren erantzuna ezezkoa izan zenez, ondoko udalerrietako zerrendatara jo genuen, eta azkenean Azpeitiko lan poltsara heldu ginen, eta lan poltsa horretatik etorri da.

Miren Esnal Laskibar

Secretario: Jose Luis Salaberri Iñarra

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS.

Gilen Garcia: Buenas tardes y bienvenidos. Antes de nada, y siguiendo con lo tratado hoy en la Junta de Gobierno Local, se propone incluir como asunto urgente la aprobación del convenio de colaboración entre los ayuntamientos de la comarca para la gestión y utilización del dispositivo invernal para personas en situación residencial grave.

¿Tenemos conformidad?

El Pleno, por unanimidad, aprueba incluir en el orden del día la aprobación del convenio de colaboración entre los ayuntamientos de la comarca para la gestión y utilización del dispositivo invernal para personas en situación residencial grave.

1.-CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE.

Pedro Bengoetxea: Yo quiero comentar dos decretos. El primero el relativo a la contratación del conductor de la brigada. Supongo que es la sustitución de Lizarra por otra persona. ¿Cómo seleccionamos a esas personas cogemos? ¿De una bolsa unitaria?

Antxoka Elorza: Como se ha hecho en anteriores ocasiones, se convocó a todos los que se encontraban en la bolsa de trabajo que tiene el Ayuntamiento. Como su respuesta fue negativa, nos dirigimos a las listas de los municipios vecinos y finalmente llegamos a la bolsa de trabajo



2021SPLE0008
8.BILERA: OHIKOA 2021/10/28

Pedro Bengoetxea: Eta bigarrena, azkena, hor jartzen du Sare elkarteari dirulaguntza ematea, baina ez du jartzen zenbatekoa den.

Aritz Larrañaga: Eskaera bat aurkeztu zen, eta Batzordean aztertu ondoren, ikusita Giza Eskubideentzako partidan 2.000 euro gelditzen zirela, hortik 1.000 euroko laguntza ematea erabaki zen.

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

2.- VIALINE ENPRESAK KUDEATUTAKO 2021EKO TRAFIKO ISUNEI BURUZKO ALKATEAREN DEKRETUEN KONTROLA.

Gilen Garcia: Azken osoko bilkuran komentatu genuen instruktorea izendatzea falta zela. Aurreko puntuko Dekretuen zerrendan ikusi duzueenez, idazkaria izendatu da instruktore eta berriro hasi gara trafiko-isunei buruzko ebazpenak ematen.

Iradokizunik ba al dago?

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

3.- 2020ko GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO DIRULAGUNTZEN ZURIKETAN 2 PROIEKTUREN ALDAKETA EDO/ETA ATZERAPEN

de Azpeitia, que de la que ha venido.

Pedro Bengoetxea: Y el segundo, el último de la lista. Se cita la concesión de una subvención a la asociación Sare, pero no recoge la cuantía de la misma.

Aritz Larrañaga: Se presentó una solicitud y tras estudiarla en la Comisión, a la vista de que en la partida de Derechos Humanos había un remanente de 2.000 euros, se acordó conceder una subvención de 1.000 euros.

El Pleno queda enterado.

2.-CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE SOBRE MULTAS DE TRÁFICO GESTIONADAS POR LA EMPRESA VIALINE EN 2021.

Gilen Garcia: En la última sesión plenaria comentamos que faltaba el nombramiento de instructor. Como habéis podido ver en la relación de Decretos del punto anterior, se ha nombrado instructor al secretario, y se han reanudado las resoluciones sobre multas de tráfico.

¿Hay algún comentario?

El Pleno queda enterado.

3.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS SOLICITUDES DE MODIFICACIÓN Y/O APLAZAMIENTO DE 2 PROYECTOS DE LAS SUBVENCIONES DE

ESKAERAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aritz Larrañaga: Aurrekoetan ere ekarri izan ditugu garapenerako lankidetzarako dirulaguntzen atzerapen eskaerak, eta oraingo honetan ere hori da. Oraingoan bi eskaera dira: alde batetik, Mugarik gabeko G.G.K.-k hiru hilabeteko atzerapena eskatu du; eta bestetik, Juan Bonal fundazioak sei hilabeteko luzapena eskatu du. Batzordearen irispina aldekoa da, eta orain dagokiona da Osoko Bilkurak onartzea edo ezestea da.

Gilen Garcia: Ba al dago ekarpenaren bat? Ados gaude orduan?

Udalbatzak, aho batez, onartzen ditu 2020ko garapen lankidetzarako emandako dirulaguntzen zuriaketarako epea atzeratzko Mugarik Gabeko G.G.K.-k eta Juan Bonal fundazioak aurkeztutako eskaerak.

4.- GIZARTE-EKIMENEN ENPLEGU-ZENTRO BEREZIENTZAT ETA ARAUTUTAKO GIZARTERATZE-ENPRESENTZAT ERRESERBATURIKO DEBAKO UDALERRIKO SOROPILAK, LORATEGIAK, ZUHAITZAK ETA BERDEGUNEAK MANTENTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Antxoka Elorza: Aspalditik berritzeko zeuden plegu batzuk dira, eta udal aurrekontuan garrantzi handiko zerbitzua da dakarren gastuaren aldetik. Pleguak prestatzeko orduan kontuan hartu dira herrian sortu diren berdegune berriak baita hilerri berriko berdegunea ere. Proposatzen den iraupena hiru urtekoa

COOPERACIÓN INTERNACIONAL DEL 2020.

Aritz Larrañaga: En ocasiones anteriores ya hemos traído solicitudes de aplazamiento de ayudas a la cooperación para el desarrollo, y en esta ocasión también se trata de eso. En esta ocasión son dos las peticiones: por un lado, G.G.S. Sin Fronteras ha solicitado un aplazamiento de tres meses; y por otro, la fundación Juan Bonal ha solicitado un aplazamiento de seis meses. El dictamen de la Comisión es favorable y ahora lo que procede es que el Pleno lo apruebe o lo rechace.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación? ¿Entonces estamos de acuerdo?

El Pleno, por unanimidad, aprueba las solicitudes presentadas por G.G.G. Sin Fronteras y la fundación Juan Bonal para el aplazamiento del plazo para justificarlas subvenciones concedidas para la cooperación al desarrollo 2020.

4.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE CÉSPEDES, JARDINES, ÁRBOLES Y ZONAS VERDES MUNICIPALES DE DEBA, RESERVÁNDOSE LA PARTICIPACIÓN A CENTROS ESPECIALES DE EMPLEO DE INICIATIVA SOCIAL Y A EMPRESAS DE INSERCIÓN REGULADAS.

Antxoka Elorza: Se trata de unos pliegos que estaban pendientes de renovación desde hace tiempo y se refieren a un servicio de gran importancia en el presupuesto municipal por el gasto que suponen. En la elaboración de los pliegos se han tenido en cuenta las nuevas zonas verdes que se han creado en el pueblo,



2021SPLE0008
8.BILERA: OHIKOA 2021/10/28

da, urtebeteko bi luzapen egiteko aukerarekin, hau da, hiru urte, gehi bat, gehi bat.

Gilen Garcia: Ba al dago ekarpenik edo iradokizunik?

Hortaz, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta araututako gizarteratze-enpresentzat erreserbatuak Debako udalerriko soropilak, lorategiak, zuhaitzak eta berdeguneak mantentzeko zerbitzuaren kontratazio-espedita.

5.- ABENDUKO OHIKO OSOKO BILKURA, ABENDUAREN 21EAN EGITEA ADOSTEA, HALA BADAGOKIO.

Gilen Garcia: Berez, abenduaren 23an zegokigun udalbatzaren bilera egitea, eta hori aurreratzea egokia dela iruditzen zaigu. Astebete bat aurreratzeko aukera aztertu da ere, baina, orduan azaroaren bileratik oso hurbil geldituko zen eta, aurrekontuekin ibiliko garenez eta margen pixka bat gehiago edukitzeko, pentsatu dugu zegokion astean bertan egitea bilera, baina ostegunean izan beharrean, asteartean egitea bilera.

Ados gaude?

así como la zona verde del nuevo cementerio. Se propone una duración de tres años, con posibilidad de dos prórrogas de un año, es decir, tres años, más uno, más uno.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación o sugerencia?

Entonces, procederemos a la votación. ¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, aprueba el expediente de contratación del servicio de mantenimiento de céspedes, jardines, árboles y zonas verdes municipales de Deba, reservándose la participación a centros especiales de empleo de iniciativa social y a empresas de inserción reguladas.

5.- ACORDAR, SI PROCEDE, LA CELEBRACIÓN DE LA SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE DICIEMBRE, EL 21 DE DICIEMBRE.

Gilen Garcia: De hecho, nos correspondía celebrar la sesión del Pleno el día 23 de diciembre, y nos parece oportuno adelantarla. Se ha barajado la posibilidad de adelantar una semana, pero entonces se quedaría muy próxima a la sesión de noviembre, y como andaremos con los presupuestos, para tener un poco más de margen, hemos pensado celebrar la sesión en la misma semana que le correspondía, pero en lugar del jueves, la reunión sería el martes.

¿Estamos de acuerdo?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du abenduko ohiko osoko bilkura, abenduaren 21ean egitea.

6.- ENERGIA HORNIDURAREN PREZIOEN GORAKADAREN AURREAN HARTZEKO NEURRIEN INGURUKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Itziar Irizar: Mozioa irakurriko dut eta gero bozkatuko dugu.

ZIOA

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrak pobretzen eta Espainiako Gobernu hori baimentzen ari da. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan.

Egoera hori, besteak beste, enpresa publikoen pribatizazioaren, salmentaren eta desagitearen ondorioz etorri da; izan ere, horrek sistema desarautzea eta "merkatuaren" esku uztea ekarri du. Administrazio Kontseiluetatik kontrolatzen eta manipulatzeko duten merkaturak, helburu bakar bat partekatuz: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea, non enpresa handiek urtean mila milioi euroko irabaziak metatzen dituzten, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez.

Egoera horri aurre egiteko neurri koitunturalak eta adabakiak besterik ez dira hartu. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarra hartu

El Pleno, por unanimidad, aprueba celebrar la sesión ordinaria del Pleno del mes de diciembre el día 21 de diciembre.

6.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MOCIÓN SOBRE MEDIDAS A TOMAR ANTE EL AUMENTO DE LOS PRECIOS DEL SUMINISTRO ENERGÉTICO.

Itziar Irizar: Voy a leer la moción y luego votamos.

JUSTIFICACIÓN

El precio de la luz en máximos históricos; subiendo las facturas; enriqueciendo a las empresas eléctricas, empobreciendo a la ciudadanía y el Gobierno español permitiéndolo. Este es el resumen del gran fraude que se está cometiendo contra la ciudadanía. Este fraude ha tenido graves consecuencias para familias, pymes o pequeños comercios.

Esta situación ha venido motivada, entre otras cosas, por la privatización, venta y desmantelamiento de empresas públicas, lo que ha llevado a la desregulación del sistema y a dejarlo en manos del "mercado". Un mercado que controlan y manipulan desde los Consejos de Administración, compartiendo un único objetivo: enriquecerse a costa de un bien esencial como la energía, en el que las grandes empresas acumulan unos beneficios de mil millones de euros anuales, mientras roban dinero a los consumidores y terrenos a los productores, provocando gravísimas consecuencias sociales y climáticas.

Sólo se han tomado medidas coyunturales y parches para hacer frente a esta situación. Y cuando ha tomado la única medida que afectará a los beneficios



2021SPLE0008
8.BILERA: OHIKOA 2021/10/28

duenean, enpresa xantaia egin eta mehatxura jodute. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoien arteko pulsu baten aurrean gaude, finean.

Egoera hau garesti ateratzen zaigu. Bada garaia burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitze eta argindarra errespetatzeko, oinarritzko ondasun eta eskubide gisa.

Gure eskumen propioetatik, tokiko erakundeetatik ere, urratsak eman ditzakegu norabide horretan, herritarren interesak babesteko. Horregatik,

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Debako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko eta Europako instituzioei eskatzen die, behar beste neurri har ditzaten elektrizitate ekoizleek bidezko ordainsaria soilik jasotzen dutela bermatzeko. 2019/44 Europar Zuzentarauak adierazten duena burutuz, kontsumitzaileentzat energia-prezio eta -kostu eskuragarriak eta gardenak bermatzeko.

2. Debako Udaleko Osoko Bilkurak Jaurlaritzari eskatzen dio:

2.1. Autokontsumoa eta komunitate energetikoak sustatzeko diru partidak gutxienez bikoiztu ditzala 2022. urteari begira.

2.2. Energiaren Euskal Erakundearen

de las grandes empresas, han recurrido al chantaje empresarial y a la amenaza. Estamos, en definitiva, ante un pulso entre élites y mayorías sociales y populares.

Esta situación nos sale cara. Ya es hora de que avancemos hacia la soberanía energética, que tengamos sistemas propios que rompan el oligopolio establecido, que construyan sistemas justos desde lo público y que se respete la electricidad como bien y derecho básicos.

Desde nuestras propias competencias, podemos dar pasos en esa dirección para salvaguardar los intereses de la ciudadanía. Por ello,

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Pleno del Ayuntamiento de Deba insta a las instituciones estatales y europeas a adoptar cuantas medidas sean necesarias para garantizar que los productores de electricidad sólo perciban una remuneración justa, en cumplimiento de la Directiva Europea 2019/44, para garantizar precios y costes energéticos accesibles y transparentes para los consumidores.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Deba insta al Gobierno Vasco:

2.1. Que duplique al menos las partidas destinadas a fomentar el autoconsumo y las comunidades energéticas de cara al año 2022.

2.2. Que realice un estudio de viabilidad

bitartez elektrizitatearen merkaturatzaile publiko bat sortzeko bideragarritasun-azterketa egin dezala.

2.3. Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara zuzendutako ordainketa-kreditua handitu dezala, *“elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuekin”* erlacionatutako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituen eskaerarik baztertu ez dadin.

2.4. Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, *“elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuetarako”* eman daitezkeen dirukantitateak handitu ditzala, eta gutxieneko zenbatekoak ezar ditzala, indarrean dauden horniduren prezioarekin bat egon dadin.

Pedro Bengoetxea: Gure aldetik, horrelakoetan egiten dugun bezala, bakoitzak aztertuko du eta erabakiko du zer egin.

Iñigo Cambronero: EAJ-tik abstenitu egingo gara mozio honetan.

Gure ustez, Europako eta, Estatuko beste administrazio batzuei eta Eusko Jaurlaritzari eskatzeaz gain, gauza asko ditugu egiteko udal-mailan, eta gure inguruko udallerriei begiratu besterik ez dugu egin behar, energia-kooperatibak eta antzekoak sortzen ari baitira.

Gilen Garcia: Nik gaia ixten arren aldera, esan nahi dut jarrera hori eskertzen dugula, zeren eta, azkenean, irakurketa hori da. Egia da Udalatik ere gauzak egin daitezkeela, legislazio kontu bat da gatazka bat dagoelako horren inguruan. Pasa den bilkuran ere izan genuenaren hari berekik doa, eta mozioarekin

para la creación de un comercializador público de electricidad a través del Ente Vasco de la Energía.

2.3. Que amplíe el crédito de pago destinado a las Ayudas de Emergencia Social para que no se rechace ninguna solicitud que reúna las condiciones de acceso a las ayudas relacionadas con los *“gastos energéticos derivados de la electricidad, el gas o el suministro de otros combustibles de uso doméstico”*.

2.4. Que en las Ayudas de Emergencia Social se incrementen las cantidades de dinero que puedan destinarse a *“gastos de energía derivados del suministro de electricidad, gas u otros combustibles de uso doméstico”* y se fijen cuantías mínimas para que coincidan con el precio de los suministros vigentes.

Pedro Bengoetxea: Por nuestra parte, como solemos hacer en estos casos, cada uno y cada una analizará y decidirá qué hacer.

Iñigo Cambronero: Desde EAJ nos vamos a abstener en esta moción.

Consideramos que aparte de instar a otras administraciones europeas, estatales y al Gobierno Vasco, a nivel municipal tenemos muchas cosas por hacer y no tenemos más que mirar a los municipios de nuestro alrededor donde se están creando cooperativas energéticas y similares.

Gilen Garcia: Para cerrar el tema, quiero decir que agradecemos esa postura, porque al final, esa es la lectura. Es cierto que desde el Ayuntamiento también se pueden hacer cosas, es una cuestión de legislación ya que hay un conflicto al respecto. Es similar a lo que tratamos en la sesión anterior, y con la moción se



2021SPLE0008

8.BILERA: OHIKOA 2021/10/28

Udalaren posizioa argitu nahi da, baina egia da, gure partetik ere badaukagula ekarpenik egitea gai horretan, eta landuko dugu gaia.

Bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak? Abstentzioak?

Udalbatzak, aldeko sei botoekin eta zazpi abstentzioekin, onartu egiten du energia horniduraren prezioen gorakadaren aurrean hartzeko neurrien inguruko mozioa.

**7.-Gai zerrendatik kanpoko aztergaia:
BIZITEGI EGOERA LARRIAN DAUDEN
PERTSONENTZAKO NEGUKO
DISPOSITIBOA KUDEATU ETA
ERABILTZEKO ESKUALDEKO UDALEN
ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Aritz Larrañaga: Lehenik eta behin, esan nahi dut asmoa zela astelehenean bertan, deialdia egin zenean, gai hau gai zerrendan sartzea asmoa zegoen.

Aurreko Gizarte Politiken batzordea egin genuenean bagenekien plenoa baino lehen, seguruenik, beste batzorde bat burutu beharko genuela gai hau plenoan sartzeko. Urgentzia dator asmoa delako azaroan bizitoki eremu hori irekitzea, neguan sartzen ari garelako eta beharrezkoa ikusten da ahalik eta azkarren martxan jartzea.

quiere aclarar la posición del Ayuntamiento, pero es cierto que desde nuestra parte también podemos hacer aportaciones al tema y trabajaremos sobre el tema.

Procedemos a la votación. ¿Votos a favor? ¿Abstenciones?

El Pleno, con seis votos a favor y siete abstenciones, aprueba la moción sobre medidas a tomar ante el aumento de los precios del suministro energético.

**7.-Asunto fuera del orden del día:
APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL
CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
LOS AYUNTAMIENTOS DE LA
COMARCA PARA LA GESTIÓN Y
UTILIZACIÓN DEL DISPOSITIVO
INVERNAL PARA PERSONAS EN
SITUACIÓN RESIDENCIAL GRAVE.**

Aritz Larrañaga: En primer lugar quiero decir que la intención era que el mismo lunes, cuando se hizo la convocatoria, este tema se incluyera en el orden del día.

Cuando se celebró la anterior comisión de Políticas Sociales sabíamos que antes del Pleno teníamos que celebrar una comisión para incluir este tema en el Pleno. Es urgente es porque la intención es abrir ese espacio residencial en noviembre ya que estamos entrando en invierno y se ve necesario ponerlo en marcha lo antes posible.

Hitzarmena herri guztietan onartu behar da, ikusiko da guztiek epe berean onartzen duten, baina eskualdean uztailetik ari gara honekin lanean eta asmoa da ahalik eta azkarren irekitzea. Orduan, gaur onartzen badugu gure ardura dena beteko dugu.

Konfinamendu garaian Deban aterpetxea irekitzea bultzatu zen bezala, eskualdean ere horrelako baliabide baten beharra dago, Foru Aldunditik behin eta berriz aldarrikatzen zuten eskualdean martxan jarri behar genuela, eta Eibarren jarriko denarekin Gizarte Zerbitzuetan genuen hutsune hori beteko da.

Hitzarmena bi urterako da, eta balorazioak egin eta gero ikusiko da hitzarmena luzatu edo beste aukera batzuek hartu behar diren.

Gilen Garcia: Ba al dago ekarpenik? Bozkatu egingo dugu orduan. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez onartzen du bizitegi egoera larrian dauden pertsonentzako neguko dispositiboa kudeatu eta erabiltzeko eskualdeko udalen arteko lankidetzaz-hitzarmena.

8.- ESKARI ETA GALDERAK.

Gilen Garcia: Gai zerrendako azken puntura heldu gara, eskari eta galderak. Zuen da hitza.

Pedro Bengoetxea: Bi galdera.

Lehena, normalizaziorako bidean gaude eta hainbat zerbitzu ditugu, hala nola turismo bulegoa, jubilatuen etxea eta bere zerbitzuak eta Ondargain, zein egoeratan gauden jakin nahi genuke. Adibidez, turismo-bulegoak denbora luzea darama

El convenio debe aprobarse en todas las localidades, ya se verá si todas lo aprueban en el mismo plazo, pero en la comarca estamos trabajando con él desde julio, y la intención es abrirlo lo antes posible. Entonces, si hoy lo aprobamos cumpliremos lo que es nuestra responsabilidad.

Al igual que durante el confinamiento se impulsó la apertura de un albergue en Deba, la comarca necesita de un recurso de este tipo, que desde la Diputación Foral reivindicaban reiteradamente su puesta en marcha en la comarca, y con lo que se va a poner en Eibar se va a cubrir el vacío que teníamos en los Servicios Sociales.

El convenio tiene una duración de dos años y una vez realizadas las valoraciones se verá la necesidad de prorrogarlo u optar por otras alternativas.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación? Entonces procedemos a la votación. ¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, aprueba el convenio de colaboración entre los ayuntamientos de la comarca para la gestión y utilización del dispositivo invernal para personas en situación residencial grave.

8.-RUEGOS Y PREGUNTAS.

Gilen Garcia: Hemos llegado al último punto del orden del día, ruegos y preguntas. Tenéis la palabra.

Pedro Bengoetxea: Dos preguntas.

La primera, ya estamos en un punto más hacia la normalización y tenemos una serie de servicios, como la oficina de turismo, el hogar del jubilado y sus servicios y lo mismo Ondargain, quisiéramos saber en qué situación nos



2021SPLE0008

8.BILERA: OHIKOA 2021/10/28

itxita, eta jakin nahi dugu pandemia aurreko ordutegietara itzuliko den edo horri buruzko ideia berririk ote dagoen.

Eta bestea, Gobernu Batzordean esan dugun bezala, hilerrri batetik bestera lekualdatzeko kartela atera denean, lekualdaketa hori nola egingo den ondo jakinarazteko beharra. Uste dugu ahalegina egin behar dugula jendeak ondo uler dezan Udalak zer egin nahi duen, izan ere, atera den kartela labur samarra gelditzen delako, eta gehiago ematen du obrako kartel bat, jendeari zer egin nahi duen azaldu nahi dion udal baten kartel bat baino. Gaia gogor samarra da eta jendea oso sentibera dago gai honekin.

Gilen Garcia: Zuek EAJtik badaukazue beste zerbait? Ez, orduan azalpenetan sartuko naiz.

Zerbitzuen egoerari dagokienez, turismo bulegoari buruz, teknikariarekin ere hitz egin behar da, balantze bat egin zuen orain arte egindako lanari buruz. Badakigu zerbitzua nola funtzionatzen duen, lehen ere irten izan da gaia, eta egia da kurtso berriari edo urte berriari begira beharrezko moldaketak egitea aurreikusten dugula pixkanaka normaltasunera bueltatzeko.

Eguneko zentroari dagokionez, bide beretik, uste dut datorren astean edo irekitzeko izango dela.

encontramos. Por ejemplo, la oficina de turismo lleva mucho tiempo cerrada y queremos saber si se va a volver a los horarios de antes de la pandemia o hay alguna nueva idea al respecto.

Y la otra, tal y como ya hemos comentado en la Comisión de Gobierno, cuando se ha sacado el cartel del traslado de un cementerio a otro, la necesidad de comunicar bien cómo se va a realizar ese traslado. Pensamos que tenemos que hacer un esfuerzo para que la gente entienda bien lo que quiere hacer el Ayuntamiento porque el cartel que se ha sacado queda un poco corto, y parece más un cartel de obra que un cartel de un ayuntamiento que quiere explicar a la gente lo que quiere hacer. El tema es un poco duro y la gente está muy sensible con este tema.

Gilen Garcia: ¿Desde EAJ tenéis alguna otra pregunta? No, entonces procedo con las explicaciones.

En cuanto a la situación de los servicios, en relación con la oficina de turismo, hay que hablar también con la técnica, que hizo un balance del trabajo realizado hasta ahora. Sabemos cómo funciona el servicio, ya ha salido el tema otras veces y es cierto que de cara al nuevo curso o al nuevo año tenemos previsto hacer las adaptaciones necesarias para volver a la normalidad.

En cuanto al centro de día, en la misma línea, creo que para la semana que viene estará listo para su apertura.

Eta Ondargaineko kasuan, esleipena bukatu zela aprobetxatuz, uste dugu, nahiz eta hori beste alderdiekin lantzea helburua dugun, esleipen berria martxan jarri aurretik, aztertu beharko dela zer nolako interbentzio, zer obra, egin beharko lirateke eraikinean, gero esleipen hori dagokion bezala bideratzeko. Helburua da urte berria hasierarekin, zenbat eta azkarrago esleitu orduan eta hobe, baina esleipena baldintzatu nahiko genuke egin behar diren interbentziorekin zeren azken aldiak ikusi dira esleipendunen aldetik izandako kekek, uragatik eta abar. Badakigu non dagoen eta zer zailtasun dituen bere kokapenarengatik, baina asmoa hori da, zer obrak egin aztertu eta ondoren nola esleitu.

Eta hilerriko kartelari buruz, guk ere berdina pentsatu genuen. Hor harremana egon zen udal komunikazio zerbitzua eta trasladoa kudeatuko duen enpresaren artean, eta egia da, hain gaitzentsiblea izanda, agian beharko lukeena da are eta sinpleago esatea: edozein kudeaketarako jar zaitetz harremanetan halako telefonoan edo halako e-mailen. Berriz hor, nahiz eta teknikoki zuzena izan, egia da herritarren sentimenduak tartean daudela, eta, azkenean, hori lotutako kontua dela eta hori zuzentzea erabaki dugu. Pentsatzen dugu bihar bertan kartela aldatuta egongo dela, izan ere asteburu berezia da hilerriari dagokionez eta familiei dagokionez eta bere urgentzia duenez, halaxe egingo dugu.

Ane Egidazu: Hilerriaren inguruan esan duzu kanpoan dagoen kartela aldatzeko asmoa duzuela, baina gero pentsatu al

Y en el caso de Ondargain, aprovechando la finalización de la adjudicación, entendemos que, aunque el objetivo es trabajar el tema con los demás partidos, antes de poner en marcha la nueva adjudicación, habrá que analizar qué tipo de intervenciones, qué obras habría que realizar en el edificio para, posteriormente, proceder a la misma. El objetivo es que, con el inicio del nuevo año, cuanto más rápido se adjudique mejor, pero nos gustaría condicionar la adjudicación a las intervenciones que hay que realizar, porque últimamente ha habido quejas por parte de las adjudicatarias por el agua, etc. Sabemos dónde está y las dificultades que tiene por su ubicación, pero esa es la intención, analizar qué obras realizar y, posteriormente, cómo adjudicar el servicio.

Y sobre el cartel del cementerio, nosotros pensamos lo mismo. Ahí hubo un contacto entre el servicio de comunicación municipal y la empresa que gestionará el traslado, y es cierto que, siendo un tema tan sensible, quizás lo que necesitaría es que se diga de forma más sencilla: para cualquier asunto se su interés póngase en contacto con ese teléfono o con este e-mail. No obstante, a pesar de ser técnicamente correcto, es cierto que los sentimientos de la ciudadanía están presentes, y que se trata de una cuestión relacionada con esos sentimientos. Por ello, hemos optado por corregirlo. Pensamos que mañana mismo el cartel estará modificado, ya que es un fin de semana especial para el cementerio y para las familias y por su urgencia así lo haremos.

Ane Egidazu: En relación con el cementerio, has dicho que tenéis intención de cambiar el cartel que esta



2021SPLE0008

8.BILERA: OHIKOA 2021/10/28

duzue edo pentsatu al da, aldizkarian edo webgunean edo etxe guztietara idatzi bat bidaltzea azaltzeko zein izango den bidea eta zer aukera egongo diren? Nik uste dut jendea ez dakiela zer aukera dituen, kanposantu zaharrea dauden hilotzekin nolako aukerak izango dituzten hilerri berrian.

Gilen Garcia: Orain teknikoki ezingo nizuke erantzun, baina lan batzordean landu dugunaren arabera, ikusi duguna da enpresak kudeatuko duela azalpenak emateko orduan, hau da, ez ditugu aukera guztiak herritar guztiei helaraziko, baizik eta azalduko da zer prozedura abiatuko den eta, horren arabera, egoera desberdina duen pertsona bakoitzak bere galderak edukiko ditu eta enpresak horretan lagunduko dio. Hori da asmoa, baina ikusiko dugu zein den biderik onena komunikaziotarako, hori nola egin, jendeak informazio minimo bat eduki dezan.

Ane Egidazu: Hori da, gutxieneko bat. Jakitea aukera desberdinak egongo direla, denbora bat izango duela aukeratzeko, eta aukera horien artean bat baino gehiago duela. Gero bakoitzak erabakiko du zer egin. Esan nahi dut ez dela gauza bera telefono batera deitzea norik erantzungo dizun jakin gabe. Pentsatzen dut jendeak eskertuko lukeela nonbaiten argibide batzuk azalduko balira.

Gilen Garcia: Ondo dago, baina, hala ere,

fuera, pero luego ¿habéis pensado o se ha pensado, mediante la revista, en la web o remitiendo escrito a todos los hogares, para explicar cuál será el modo y las posibilidades que habrá? Yo creo que la gente no sabe qué posibilidades tendrán en el nuevo cementerio en relación con los cadáveres que hay en el antiguo camposanto.

Gilen Garcia: En este momento no podría responderte técnicamente, pero lo que hemos tratado en la comisión de trabajo es que sea la empresa la que gestione a la hora de dar las explicaciones, es decir, no haremos llegar todas las opciones a toda la ciudadanía, sino que se explicará qué procedimiento se va a poner en marcha y en función de su diferente situación, cada persona tendrá sus propias preguntas y la empresa le ayudará en ello. Esta es la intención, pero habrá que ver cuál es el mejor medio para las comunicaciones, cómo hacerlo, para que la gente tenga una información mínima.

Ane Egidazu: Eso es, un mínimo. Que sepan que va a haber diferentes opciones, que va a tener un tiempo para ejercitar la opción, y que entre esas opciones hay más de una. Luego cada persona decidirá qué hacer. Quiero decir que no es lo mismo llamar a un teléfono sin saber quién te va a responder. Pienso que la gente agradecería que se publicarían algunas aclaraciones.

Gilen Garcia: Está bien, pero yo

nik saiatuko nintzateke ahal den heinean lan batzorde horretan adostu ditugun irizpenak jarraitzen, eta horien arabera jarraitu lanean orain arte egin dugun moduan. Ongi etorria da ekarpena, baina esan nahi dudana da, gai sentsiblea den heinean, nik hemen orain erantzun eta hemen erabaki beharrean, hobe dela tekinkoki aztertzea nola egingo den, zer den aproposena

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 19:20an amaitzen da Osoko Bilkura.

Jose Luis Salaberri Iñarra

Idazkaria



procuraría, en la medida de lo posible, seguir los dictámenes que hemos acordado en dicha comisión de trabajo y seguir trabajando en función de los mismos tal y como hemos venido haciendo hasta ahora. La aportación es bienvenida, pero lo que quiero decir es que, tratándose de un tema sensible, en lugar de responder aquí y decidir aquí, es mejor analizar técnicamente cómo se va a hacer, qué es lo más adecuado.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno a las 19:20 horas.

Gilen Garcia Boyra

Alkatea

